



Arartekoaren 2023R-2486-22 Ebazpena, 2023ko maiatzaren 10ekoa. Honen bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio informazio publikoa eskuratzeko eskaerak izapidetu ditzala, gardentasunaren eta gobernu onaren araudian ezarritako prozedura bereziaren arabera.

Aurrekariak

1. Arartekoak kexa bat izapidetzeko onartu zuen, Bilboko Udalak ez baitzien erantzun informazio publikoa eskuratzeko eskaera batzuei Horien bidez, hain zuzen, informazioa eskatu zen udal-aparkaleku baten obra-proiektu baten eraikuntza-planoei buruz eta sozietate emakidun batek ustiatzen duen aipatutako aparkalekuari dagokion ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiriari buruz.

Kexagileak adierazi du Bilboko udal-aparkaleku bateko plaza baten lagapen-hartzailea dela. Aparkaleku horren eraikuntza eta ustiapena enpresa pribatu bati adjudikatu zitzaion Bilboko Udalak 1994an emandako ebazpen bidez.

Kexagileak adierazi du bere titulartasuneko aparkaleku-plaza erabiltzeko eta gozatzeko lagapen-kontratu originalak, enpresa emakidunarekin izenpetutakoak, honako neurri hauek jasotzen zituela: 4,80 x 2,40 metro.

Azaldu du bere eskubideei kalte egin dietela, aldameneko plazaren lagapen-hartzailearekin sortutako hainbat arazoren ondorioz ikusi baitu bere plazak kontratuan ezarritakoa baino gutxiago neurtzen duela. Hori dela eta, erabaki zuen egoera Bilboko Udalari azaltzea, jabarizko titularra den aldetik, legez dituen eskubideak defendatzeko laguntza eskatzeko. Zehazki, zenbait idazki eta informazio- zein dokumentazio-eskaera bidali zituen 2022ko urriaren 20an, azaroaren 9an, azaroaren 14an, 2022ko abenduaren 12an eta 2023ko urtarrilaren 10ean; idazkiok eta eskaerok aparkalekuaren erabilera-arauei, planoei eta proiektuari buruzkoak ziren, bai eta erkidegoaren estatutuei eta ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiriari buruz ere, besteak beste.

Kexaren muinak eskatutako dokumentazioarekin du zerikusia; bada, horren harira, kexagileak adierazi du 2022ko abenduaren 12an idazki bat aurkeztu zuela Bilboko Udaleko erregistroan. Horren bidez, bere ustetan administrazioak bere baitan izan behar zuen dokumentazioa eskatu zuen, baina ez zioten eskaera horri erantzun, eta, horrenbestez, 2023ko urtarrilaren 10ean eskaera bera egiteko beste idazki bat aurkeztu zuen administrazio horren erregistroan..

Kexagileak adierazi du aipatutako idazkietan honako informazio hau eskatu zuela, baina ez zuela inolako erantzunik jaso:





- Udalaren titulartasuneko den ondasun higiezin eraikitze eta egikaritzeko proiektuaren planoak; higiezin hori, hiri-katastroko erregistroko katastro-erreferentziaren arabera, 1996an eraiki edo birgaitu zen. Gainera, uste da enpresa pribatu bati adjudikatutako lurpeko aparkalekua eraikitze eta ustiatzeko proiektua idazteko lehiaketa publikoaren baldintza-agirian agertu behar direla.
- Udal-emakidako aparkalekuaren lagapen-hartzaileen erkidegoari dagokion ondasun higiezin gainera zergaren ordainagiria. Kexagilea erkidego horretako kidea da.

Kexa-espedita hau aztertu ondoren, erakunde honek aukera izan du egiaztatzeko 2008. urteari dagozkion aparkalekuaren planoak eman zizkiola Udalak Ez zizkion, beraz, kexagileak eskatutakoak eman, hau da, 1996. urtekoak, eraikuntza-proiektu originalari dagozkionak.

2. Kexan azaldutako egitateak ikusi ostean, Arartekoak laguntzeko eskaera egin zion Bilboko Udalari, eta horren bidez galdetu zion ea administrazioari zerk eragotzi zion informazio publikoa eskuratzeko eskaera ebatzea edo, hala badagokio, eskaera zergatik ezetsi zen aipaturiko gehieneko epea igaro ostean berariazko ebatzen jakinarazi gabe.

3. Egindako eskaerari erantzuteko, erakunde honen sarrera-erregistroan jaso genuen Bilboko Udalak egindako txostena, zeinean jasota baitago kexagileak 2022ko urriaren 20an, azaroaren 9an eta azaroaren 14an hiru idazki bidali zituela erregistro orokorraren bidez, bai eta zenbait kexa (Taldeka sistemaren bidez) eta mezu elektronikoko ere.

Jarraian, kexagilearen eskaeren harira, administrazioak interesdunaren idazkietatik ateratako zenbait esaldi azpimarratzen ditu komatxoaren artean eta etenpuntuekin. Zehazki, beste adibide batzuen artean, honako hauek aipatzen dira:

“...solicito estatutos del parking municipal la casa grúa y las normas de uso de dicho parking...”

“... y que se corrijan o subsanen las medidas de las tres parcelas la 87, 88 y la 89 también...”

“...solicito los planos del parking también...”

“...que mi parcela mide menos que las otras dos cuando se supone que tienen que medir lo mismo y lo que les sobra a ellos me falta a mí...”

“...artículo 6. Son obligaciones de los cesionarios: usar el estacionamiento y la plaza según el destino pactado y de modo que no perjudique los derechos de los demás cesionarios...”





“...la plaza que desea usar y disfrutar el cesionario, tiene un tamaño de 4,80 x 2,40 metros...”

“...el responsable de todo esto es el Ayuntamiento quién es el responsable de todo esto ya que es quien dirige el aparcamiento sin hacer que se cumplan los estatutos...”

“...quiero y necesito lo que pago del IBI correspondiente a la parcela xx...”

Halaber, beste apartatu batzuetan, administrazioari agintzen dio aparkalekuaren beste erabiltzaile batekin dituen arazoetan esku hartzeko.

Geroago, erantzuteko txostenean, udalak azaldu zuen kexagileak partzela hildako bere aitarengandik hartu zuela oinordetzan, eta, gainera, Bilboko beste kale batean dagoela erroldatuta; udal-aparkaleku horretako eragin-eremutik kanpo dagoen beste kale batean, hain zuzen.

Txostenak dio kexagileak lagapen-hartzaileen erkidegoaren estatutuak eta aparkalekuaren planoak eskatu zituela. Aipatutako planoaren harira, udalak dio Arartekoari bidali diola kexagilearen partzela dagoen solairuarena, dituen neurriak barne. Alabaina, dokumentazio hori ez da eranskin gisa bidali administrazioak bidalitako ofizioarekin batera.

Edonola ere, udalak dio kexagilearen partzelaren neurriak, ustiatzeko enpresa adjudikaziodunarekin izenpetutako erabilera lagatzeko kontratu originalaren arabera, honako hauek direla: 4,80 metro luze eta 2,40 metro zabal. Aparkalekuaren planoan partzela horretarako jasotako neurriak honako hauek dira: 5,95 metro luze eta 2,40 metro zabal. Halaber, adierazten da partzela mugakideen zabalera 2,40 metrokoa dela planoan jasotakoaren arabera.

Administrazioa ados dago erakunde honek aldeztu aurretik jakinarazitakoa berrestearekin; izan ere, bitartekoen arteko desadostasunen kasuan (erkidego bateko bi lagapen-hartzaileen arteko eztabaida baten kasuan, hain zuzen) udalak ez du ez eskumenik, ez ahalmenik harreman horiek bideratzeko, zuzenbide zibileko arauak direlako auzia ebazteko kontuan hartu behar direnak. Jarraian, toki-erakundeak lagapen-hartzaileen erkidegoaren estatutuak eta libilgailuak gaitutako espazioetan eta kalean aparkatzeko ordenantza¹ aipatzen ditu, gatazka ebazteko eta udalaren jarduketa-eremua zehazteko, ekipamenduen jazarizko titularraren denaldetik; izan ere, ordenantzaren arabera, zehatzeko ahalmena du erabilera okerreko kasuetan.

¹ 2022ko apirilaren 26ko 78. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako ordenantza, honako esteka honetan eskuragarri:

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/04/26/II-1585_eus.pdf?hash=ee6a3d0757543d205b1049782eab3f66



Aipatutako udal-ordenantza ere ukitzen da adierazteko zehatzeko erregimen bat dagoela aparkalekuko partzelak oker edota baimenik gabe erabiltzen diren kasuetarako.

Administrazioaren erantzuteko txostena amaitzeko, ondoren egingo den azalpenerako interesgarriak diren funtsezko bi alderdi adierazten dira.

Udalak adierazten du, alde batetik, lagapen-hartzaileen erkidegoa dela ondasun higiezinaren gaineko zerga eta estolderia-zerbitzua emateagatik tasa ordaintzera behartuta dagoena, udal-aparkaleku den ondasun higiezinari dagokionez. Beste alde batetik, honako hau dio udalak: *“no está de más recordar que constituyen causas de inadmisión de las solicitudes de información las que sean manifiestamente repetitivas o tengan un carácter abusivo no justificado, con la finalidad de transparencia de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Públicas y Buen Gobierno (en adelante LTBG), así referido en su artículo 18”*.

Beraz, Ararteko erakunde honetan uste dugu beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula; hortaz, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Aipatutako aurrekariak ikusita, Arartekoak uste du beharrezkoa dela sortu den eta herritarrak jarritako kexa eragin duen egoeraren testuingurua zehaztea.

Herritarrak erakunde honetan aurkeztutako hasierako kexa-idazkian zenbait alderdi azaldu zituen udal-aparkaleku baten emakidaren eta ustiapenaren enpresa adjudikaziodunarekin erabilera lagatzeko izenpetutako kontratu bat ez betetzearen harira, hau da, aparkalekuko partzelen lagapen-hartzaileen erkidegoaren estatutuen urratze nabarmenekin lotutako arazoaren harira. Administrazio-arauen mende ez dagoen gai partikular bat zen, baina kexagileak Bilboko Udalera jo zuen datuak, dokumentuak eta laguntza eskatzeko, bere eskubideak babesteko elementuak eman ziezazkioten, aparkaleku-partzelen beste lagapen-hartzaile batzuekin zuen arazoa ebazteko.

Hala, hainbat idazki eta eskaera bidali zizkion Bilboko toki-erakunde horri, aurrekarietatik ondorioztatzen denez. Kexagilearen iritziz, udalak ez zituen bere eskaerak bete, eta, beraz, Arartekora jotzea erabaki zuen, bere eskubideak defendatzeko.





Hasieratik, erakunde honek kexagileari jakinarazi zizkion Arartekoaren eginkizunen irismena eta jarduteko duen marjina, eta uneoro jakinarazi zitzaion partikularren arteko gatazka beste jurisdikzio-ordena batzuetan ebatzi behar zela, administrazio-zuzenbideaz bestelako arauen arabera.

Hori horrela, aldameneko aparkaleku-partzela baten lagapen-hartzaileak sortutako problematikaren aurrean, Arartekoak udalari aurkeztutako eskaeren irismenaren berri eman zion herritarrari, eta jakinarazi zion bai toki-erakundeak, bai Arartekoak bere eskubideak babesteko zein eremutan lagun ziezaioketen.

Hala, udalean egindako eskaerak aztertuta, Arartekoak ondorioztatzen du kexagileak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatu zuela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APEL) [13.d\) artikuluan](#) adierazitako baldintzetan, eta, beraz, eskaera izapidetu behar zela [Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean](#) aurreikusitakoaren arabera.

Zehazki, aurrekarietan azaldu den bezala, kexagileak Udalaren titulartasuneko den ondasun higiezinaren eraikitze eta egikaritzeko proiektuaren planoak eskatu zituen; higiezin hori, hiri-katastroko erregistroko katastro-erreferentziaren arabera, 1996an eraiki edo birgaitu zen. Gainera, uste da enpresa pribatu bati adjudikatutako lurpeko aparkalekua eraikitze eta ustiatzeko proiektua idazteko lehiaketa publikoaren baldintza-agirian agertu behar direla.

Alabaina, udalak 2008. urteko planoak eman zizkion kexagileari, eta, antza, dokumentazio hori ez zettorren bat kexagileak eskatutakoarekin.

Beste alde batetik, udal-emakidako aparkalekuaren lagapen-hartzaileen erkidegoari dagokion ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) ordainagiria eskuratzeko ere eskatu zen (kexagilea erkidego horretako kidea da), baina, antza, ez diote dokumentu hori eman.

Hori horrela, erakunde honek laguntzeko eskaera egin zion Bilboko Udalari, informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko kexagileak egindako eskaerei erantzun ez izanaren arrazoiak azaltzeko. Halaber, laguntzeko eskaeran, zenbait gogoeta egin ziren jakin nahi zen informazio zehatza mugatzeko eta bideratzeko.

Alabaina, Bilboko Udalak kexagilearekin izandako elkarrekintza jarraituaren eta komunikazioaren datuak eman ditu, erakunde honek jadanik ezagutzen dituenak eta planteatutako gaia argitzen ez dutenak, erakunde honek bidalitako laguntzeko eskaeran adierazitakoaren arabera legezketasuna eta herritarraren eskubideak betetzearen harira.



2. Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuta kexagilearen asmoei erantzun zehatzik eman ez zaiela eta administrazioak herritarrek udalari bidalitako idazki eta kexa ugariak aipatzen dituela, Arartekoak egokitzat jotzen du, lehenengo eta behin, gogora ekartzea administrazio onerako eskubidea, sortu berriko eskubidea, [Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan jasotakoa](#). Gure Auzitegi Gorenak eskubide hori onartu du, jurisprudentzia sendo bat sortuz, herritarren oinarrizko eskubidea sendotzeko, ez soilik Administrazioak herritarren aurrean jarduteko betebeharrak gisa.

Auzitegi Gorenaren 2020ko urriaren 15eko Epaiak² honela definitzen du administrazio onaren printzipioa: *«un nuevo paradigma del Derecho del Siglo XXI referido a un modo de actuación pública que excluye la gestión negligente y [...] no consiste en una pura fórmula vacía de contenido, sino que se impone a las Administraciones Públicas, de suerte que el conjunto de derechos que de aquel principio derivan (audiencia, resolución en plazo, motivación, tratamiento eficaz y equitativo de los asuntos, buena fe) tiene —debe tener— plasmación efectiva y lleva aparejado, por ello, un correlativo elenco de deberes plenamente exigible por el ciudadano a los órganos públicos»*.

Era berean, [Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan](#) edukia aipatzen duen 2020ko abenduaren 3ko 1667/2020 Epaiak³ Auzitegi Gorenak hauxe dio: *“...la buena administración es algo más que un derecho fundamental de los ciudadanos, siendo ello lo más relevante; porque su efectividad comporta una indudable carga obligación para los órganos administrativos a los que se les impone la necesidad de someterse a las más exquisitas exigencias legales en sus decisiones, también en las de procedimiento. Y en relación con eso, con el procedimiento, no puede olvidarse que cuando el antes mencionado precepto comunitario delimita este derecho fundamental, lo hace con la expresa referencia al derecho de los ciudadanos a que sus asuntos se traten dentro de un plazo razonable.”*

Horrela, administrazio publikoek, herritarrekiko harremanetan, administrazio-prozeduraren bidez bideratu behar dituzte beren eginkizunak, administratuen eskubideen eta interes publikoaren beraren berme gisa. Administrazio-izapideak egoteko eta herritarrei behar bezalako erantzuna emateko bermea Espainiako Konstituzioan bertan dago jasota. Hala, prozedurak arautzen dituzten arauak zorrotz betetzeko betebeharrak administratiboak, espedienteak osatzen duten izapide guztiak ahalik eta gehien zainduz, zuzenean dator [103. artikuluko](#) konstituzio-agindutik, hau da, interes orokorrak objektibotasunez zerbitzatzen dituen

² Auzitegi Gorenaren 3279/2020 Epaiak, urriaren 15ekoak. [\[ECLI:ES:TS:2020:3279\]](#)
Auzitegi Gorenaren 1667/2020 Epaiak, abenduaren 3koak. ³ [\[ECLI:ES:TS:2020:4161\]](#)



administrazio eraginkor baten agindutik, Legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez jarduten duen administrazio baten agindutik, zeina jarduketa publikoa Legeak ezarritako administrazio-prozeduraren mende jarriz artikulatzen baita. Gogorarazi behar da eraginkortasunaren printzipioak (Espainiako Konstituzioaren 103.1. artikulua) administrazio publikoei eskatzen diela gizarteak eskatzen dizkien itzaropenak modu arrazoizkoan bete ditzatela. Horren barruan, administrazioaren betebeharra da partikularrek aurkezten dizkieten eskariak eta erreklamazioak berehala ebaztea; izan ere, administratuak administrazio-ebazpenen oinarriak ezagutzea ezinbestekoa da bere legezko eskubideak eta interesak era egokian defenda ditzan. Hori horrela, administrazio-prozedura erkidearen legeak hezuramaitzen du aurreko paragrafoetan azaldutakoa, hain zuzen; izan ere, hauxe dakar [21.1 artikuluan](#): *“Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua”*.

Hori horrela, Arartekoak uste du kasu honetan kexagilearen uzia errepikatzeak ez duela berekin ekarri behar egindako informazio-eskaeraren izapidea ez bultzatzea, ezta administrazio publikoak erantzunik ez ematea edota administrazio-isiltasunik egotea ere, betiere baldin eta eskatutakoa udalaren jarduketa-eremuaren barruan badago.

3. Arauak betetzearen gaiari dagokionez, Arartekoak uste du, jadanik aurreratu den bezala, informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko herritarrek duten eskubidea baliatu zuela kexagileak, [APELaren 13.d\) artikuluan](#) ezarritakoaren arabera, eta, beraz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen araubide orokorraren arabera izapidetu behar zela.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean, Konstituzioaren [105.b\) artikuluan](#) arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko araubide juridiko orokorra ezartzen da — "pertsona guztiak dira eskubide horren titular" (hitzaurrearen 3. paragrafoa)—, aipaturiko legearen [14. artikuluan](#) ezartzen diren mugekin. Beraz, informazioa eskuratzeko eskubidearen aitortzea orokorra da; eta mugak berariazkoak eta espezifikoak.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen [12. artikuluan](#) informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen aplikazio-eremu subjektiboa mugatzen du, eta honela dio: *“Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan. Halaber, autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da, betiere bakoitzaren eskumenen barruan”*.





Eskubidearen titulartasuna oso modu zabalean aitortzen da, eta, gainera, egikaritzeko ez da beharrezkoa interes jakin bat zehaztea, Auzitegi Gorenak 2022ko ekainaren 2ko epaian⁴ adierazitakoaren arabera:

“(...) Como esta Sala ha señalado en ocasiones precedentes, así en la sentencia de 12 de noviembre de 2020 (recurso 5239/2019), la LTAIBG reconoce la titularidad del derecho de acceso de forma muy amplia a "todas las personas", sin mayores distinciones, empleando una fórmula similar a la del Convenio del Consejo de Europa sobre el Acceso a los Documentos Públicos de 18 de junio de 2009, que en su artículo 2.1 señala que "cada Parte garantizará el derecho de cualquiera, sin discriminación de ningún tipo a acceder..." a los documentos públicos en posesión de las autoridades públicas.

Esta amplia delimitación subjetiva es igualmente similar a la que resulta del artículo 105.b) de la CE, que reconoce "a los ciudadanos" el acceso a los archivos y registros administrativos.

Como se aprecia con facilidad, en la delimitación subjetiva establecida por el artículo 12 de la LTAIBG examinado, no se hace mención alguna sobre la exclusión de solicitudes de acceso por razón del interés privado que las motiven. (...)”

Bestalde, eskubidearen esparru objektiboak ([13. artikulua](#)) informazio publiko gisa definitzen ditu erakunde behartuen esku dauden eta beren eginkizunak betez egin edo eskuratu diren dokumentu guztiak; horien formatua edo euskarria gorabehera.

Kexagileak eskatutako dokumentuak eta informazioa lagungarriak izan daitezke bere arazo zehatza konpontzeko, eta, azken batean, horren azpian dagoen funtsezko gaia informazioa eskuratzeko bere eskubide legitimoa da, zeina, erakunde honen iritziz, APELaren 13. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean ezarritakoaren arabera egikaritu baitu Hala ere, erantzunean administrazioak ez du ezer esaten aparkalekua eraikitze proiektuaren planoei buruz, eta, bestalde, adierazten du ondasun higiezinaren gaineko zergaren zergapekoa lagapen-hartzaileen erkidegoa dela, eta hori ez dator bat herritarraren eskaerarekin, jakin badakielako zein den zergapekoa.

Beraz, Arartekoak uste du kexagileak administrazioak dituen espedienteak eta dokumentuak eskuratzeko planteatu zuen eskubidea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean aurreikusitako araubide bereziaren arabera izapidetu behar zela.

⁴ Auzitegi Gorenaren 2272/2022 Epaia. [[ECLI:ES:TS:2022:2272](#)]

4. Bestalde, Administrazioak bere erantzunean amaitzeko adierazten du informazio-eskaerak ez onartzeko arrazoiak direla argi eta garbi errepikakorrek izatea edota justifikatu gabeko abusuzko izaera izatea, 19/2013 Legearen gardentasun-helburua betetzeko, [18. artikuluan](#) xedatutakoaren arabera.

Bada, horren harira, azpimarratu behar da ezin dela esan eskatzen dena argi eta garbi errepikakorra dela ez delako eskuratzen. Nolanahi ere, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ukatzeko arrazoiak behar bezala justifikatu behar dira, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen [18. artikuluan](#) jasota dagoen moduan.

Puntu honetan, gogorazi behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen hitzaurretik ondorioztatzen denez, legearen xedea honako hau dela: *"jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea eta horiek ez betetzearen ondoriozko ondorioak ezartzea"*. Hori horrela, lehen azaldu den bezala, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Legearen [12. artikulua](#)k pertsona guztiei aitortzen die informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, interes jakin bat egiaztatu beharrik gabe. Formulazio zabala da eskubidearen aitopenari eta legeko erregulazioari dagokienez, eta, Auzitegi Gorenaren hitzetan⁵, *"obliga a interpretar de forma estricta, cuando no restrictiva, tanto las limitaciones a ese derecho que se contemplan en el artículo 14.1 de la Ley 19/2013, como las causas de inadmisión de solicitudes de información que aparecen enumeradas en el artículo 18.1 de la misma ley, sin que quepa aceptar limitaciones que supongan un menoscabo injustificado y desproporcionado del derecho de acceso a la información"*.

Horren ondorioz, ez onartzeko arrazoi bat **modu murriztailean aplikatu behar da**, eta horrek esan nahi du egokitzen jotzen duen administrazioak **behar bezala justifikatu behar duela**. Ez onartzeko arrazoiaren funtsa edota justifikazioa, ez baitaie ez kexagileari, ez erakunde honi jakinarazi.

5. Lankidetzan aritzeko asmoz, Arartekoak egokitzen jotzen du gardentasun-printzipioari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko zenbait gogoeta egitea, horiek guztiak behar bezala izapidetzeko oinarri izan baitaitezke.

⁵ Auzitegi Gorenaren 2017ko urriaren 16ko epaia (75/2017 errekurtsua) [ECLI:ES:TS:2017:3530](#)

Auzitegi Gorenaren 2022ko ekainaren 2ko epaia (4116/2020 errekurtsua) [ECLI:ES:TS:2022:2272](#)

Lehenengo eta behin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen [62. artikuluan](#) jasotako informazio publikoa eskuratzearen arloko printzipio azpimarragarri batzuk gogorarazi behar zaizkio udalari:

“(…)

2.– *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez, gardentasunaren oinarrizko legeriak ezartzen dituen mugak era murriztailean interpretatuko dira, eta, betiere, lehendabizi ebaluatu beharko dira, alde batetik, aipatzen diren interes publiko eta pribatuari eragindakoa usteko kalteak, eta, bestetik, eskatutako informazioa zenbateraino den garrantzitsua edo adierazgarria, eta zenbateraino den beharrezkoa, objetiboki, gobernuaren ekintzaren kontrol demokratikoa egiteko.*

3.– *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea –toki-botere publikoen eta erakunde horien arduradun publikoen kontu-ematearen kontrol demokratikorako beharrezko den aldetik– antiformalismoan eta garapen-samurtasunean oinarritutako prozeduren bidez baliatuko da; eta, edonola ere, eskubide hori berariaz ukatzen denean –gardentasunaren oinarrizko legerian aurreikusitako mugak aplikatzearen ondorioz edo datuen babesaren inguruko legeriaren arabera datu pertsonalei zuzenean eragiten dielako–, orduan, arazoibideak oinarri sendoak izan beharko ditu.*

(…)”

Bestalde, jadanik azaldu bezala ez onartzeko arazoak justifikatzeko betebeharrak gain, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen [14. artikuluan](#) ezarritakoaren harira, eskuratzeari aplikatu dakizkiokeen mugei dagokienez, komenigarria da adieraztea ez dutela jarduten ez automatikoki ukatzearen alde, ez modu absolutuan, edukiei dagokienez, izan ere, artikulua horretan xedatzen denez, aplikatu “ahal dira”. Gainera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak ekainaren 24ko CI/002/2015 interpretazio-irizpidean⁶ xedatu zuenez, “*la invocación de motivos de interés público para limitar el acceso a la información deberá estar ligada con la protección concreta de un interés racional y legítimo*”.

Hau da, eskubidea mugatuta gera daiteke beharrezkoa den kasuetan, informazioaren izaeratik, Konstituzioan xedatutakoaren ondorioz, edo gatazkan sartzen delako babesturiko beste interes batzuekin. Horregatik, administrazioak [kaltearen testa](#) edo aurretiazko azterketa egin behar du beti, informazioa eskuratzeko kalte zehatz, definitua eta ebaluagarria dakarren baloratzeko.

⁶ https://www.consejodetransparencia.es/dam/jcr:77d11404-2f9a-45e6-be70-d6c96409acd5/C2_2015_limites_derecho_de_informacion.pdf



Azken batean, aurreko gogoeta guztiak kontuan hartuta, Arartekoak uste du kexagileak Bilboko udal-administrazioak duen informazioa eskuratzeko egindako eskaera eskubidearen egikaritze gisa izapidetu behar zela, gardentasunari buruzko araudian ezarritako baldintzen arabera, eta gardentasuna kontrolatzeko organoen eta organo judizialen doktrinari kasu egin behar zitzaiola, ez onartzeko mugak edo kausak aplikatzeko orduan; gainera, mugak modu murriztailean interpretatu behar dira, kasu zehatzaren arabera.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Bilboko Udalari:

Gomendia

Kexagileak udal horrek duen informazioa eskuratzeko egindako eskaera erantzun eta izapidetu dezala, eta kexagileak informazio publikoa eskuratzeko duen eskubidea epe barruan eta modu egokian izapidetu dezala, gardentasun-araudian jasotako araubide bereziari jarraikiz, eta, hala badagokio, berariaz eta modu proportzionatuan arrazoituz eta justifikatu dezala informazioa eskuratzeko mugak edo ez onartzeko beste edozein arrazoi aplikatu izana.

